# EUS KE RA ZA LEAK

**HARTZA, GARCIA**

**Lengo ta oraingo, emengo ta erbesteko gizon izkuntzazaleak, eginalak eginda be, ezin izan dira euskerearen aintxin urruneko sustraiarte sakoneraiño barruratu.**

**Eta belaunaldi* barriak jaioko dira, eta kondairak eskuratu ezin izan dauzan amaika gauza ta jazoera izkutuko argitara akarriko dauskun tramankulurik asmauko dabe, eta izarrik gorengoetaraiño joango dira, baiña gure izkuntzaren, berbetearen aintxin zarra, etorriko diran mende ta gizaldietan be, illunpe baltzean izango dira.**

* *

**Kondairak bere kolkoan artu eta guganaiño ekarri al izan dauzan euskerearen zer zarrak irakurteari emonik nengoala, euskotar askok eta askok arrotz-izentzat dogun GARCIA jo neban begi biakaz, bete- betean, eta emen doakizue gaur-egungo GARCIA'ren jaiotza ta ibi-]aldi moskortua.**

* * *

**Hartza (basaberea*) Harza, Hartze, Hartzea, Yartzia, Garcea.,. Garcia.**

**Garcia edo Gartzia au, ba, euskaldun osoa da.**

**789'tik 791 urteraiñoko bitarte artan, Gaztelerritik España'ko lau aldeetara zabalduten asi ta ondo be ondo ta ugari zabaldua.**

**Gaztelerrira baiña, Naparroako Errege-alabeak (prinzeseak) (gero Leon'go Jimena erregiñea izan zanak) Prantzialdeko Euskalerritik eroan eban.**

**LANDAJUELA'tar Andoni'k**

---

**O A R R A :**

**Euskerea irakatsiko neuke:**

- **Egunero goizetan.**
- **Martitzenean eta eguenean arratsaldeko 6'rak arte. Nigaz ikusi nai ba dozu deitu 4-31-65-11 Urrut.**

---

# ZER DA:

*—Belaunaldia? Gizaldia, aldi bateko gizonen denporea. Gurasoak eta seme-alabak belaunaldi bi dira.*

*—Basaberea? Basoko aberea, piztia.*

*—Kideak? Atzizkia da eta alkarregaz zerbait egiteko laguna esan gura dau: Ingurukideak, inguruan bizi diran lagunak; bizikideak, biziteko lagunak.*

*—Kondaira? Lenagotik gaur artera izan diran jazoeren edestia edo kontatzea.*

*—Artegatu? Eroapena, pazientzia galdu-azo; arte barik itzi.*

*—Kapitalismoa? Diruagaz dirua egiteko bidea, iñoren lana onuragari dauana.*

*—Sozialismoa? Langille guztiak alkarrentzat lan egiteko bidea.*

*—Lizunkeria? Oituren nasaitasun larregia andrazko ta gizonezkoen artean.*

*—Azoka? Saltzeko daukaguna eroan eta saltzeko leku berezia. Bardin erosteko.*

*—Demokrazia? Erria berak aukeratutako ordezkariak jaurtzea edo gobernatzea.*

*—Kazkarra? Emen, burua.*

*—Zaldarra? Barruagotik sortu da azalera agertzen dan aunditua materiagaz.*

*—Brankea? Txalupearen aurreko aldea.*

*—Posesiboa? Norena dan esaten dauan izen-laguna.*

*—Pertsona? Aditzaren jabea. Berbaz dagoana, ni, entzuten dagoana zu edo i, alkarizketan sartzen ez dana, a edo ori.*

*—Idartean? Ira, larretan aurkitzen dan landarea.*

*—Arnaria? Frutua, abereak edo landarak emoten dabena.*

*—Koltzea? Burdi-gaiñean, zeozer jausi ez daiten, ipinten dan sarea.*

*—Erditzea? Umea mundura emotea.*

*—Dantzut? Entzuten dot.*

*—Irratia? Urriñeko itzaldiak dakarzkuzen tresnea, radioa.*
*Gentza? Bakea.*

LA EDITORIAL VIZCAINA, S. A. BILBAO D. L.: 2.030 - 1977